



# MARIENEA

Basauriko Emakumeen etxea  
( Kareaga Goikoa 54 ) 94 612 41 00  
marienea@basauri.net

4. ZBKIA

MARIENEA BERRIPAPERA, 2014KO URTARRILA - EKAINA



Erakusketak

Marienea

hitzaaldak

Ekintzak

Ailerak



# AURKIBIDEA



**EMAKUMEENTZAKO JABEKUNTZA  
ESKOLA.....3.ORR.**



**EKINTZA HAUEK AURRETIKO IZEN EMATEA, PARTE  
HARTZEAREN KONFIRMAZIOA ETA DAGOKION  
MATRIKULAREN ORDAINKETA ESKATZEN DUTE.**

**HAURTZAINDEGI ZERBITZUA AUKERAN DAGO.**

**EZINBESTEKOA DA AURRETIK  
ESKAERA EGITEA.**

**ERAKUSKETAK ETA ERLAZIONATUTAKO  
EKINTZAK .....8.ORR.**



**BISITA ETA PARTE HARTZE LIBREA**

**PUBLIKO GUZTIEI ZUZENDUTAKO  
EKINTZAK .....12.ORR.**



**AURRETIKO IZEN EMATERIK GABE**

**EGUN ESANGURATSUAK.... .....14.ORR.**

**Basauriko Emakumeen etxea ( Kareaga Goikoa 54 ) 94 612 41 00**

**marienea@basauri.net**

**facebook**

**Marienea BASAURI**

## EMAKUMEENTZAKO JABEKUNTZA ESKOLA



### LIDERGOA ETA KUDEAKETA EMOZIONALERAKO TAILERRA

Formatzailea: Natalia Martín Izquierdo

Saio Kopurua: 10 (20 ordu guztira)

Datak: astelehenean, 2014ko otsailak 3tik apirilak 7ra

Ordutegia: 17:00 - 19:00

Matrikula: 10 €



Tailer honen helburua gure Ni-aren inguruko kontzientzia hartzea da, gure jabekuntza prozesu indibidual zein kolektiboaren parte diren emozio, motibazio edo interes pertsonalen kontzientziatzea, alegia. Emakume izatearen eraikuntza soziala abiapuntu bezala hartuta, lidergoa eta talde lana garatzeko eta bizitza pertsonala, familia zein lan bizitza negoziatzeko gure ahalmenak garatzeko lagunduko gaituzten tresna pertsonal ezberdinak landuko ditugu tailer honen bitartez.

MARIENEA



### DESPRINTZESATZE TAILERRA

Formatzailea: Irantzu Varela (FAKTORIA LILA)

Saio Kopurua: 8 (16 ordu guztira)

Datak: asteartean, 2014ko otsailak 18tik apirilak 8ra (biak barne)

Ordutegia: 18:00 - 20:00

Matrikula: 10 €

Tailer honetan gauza ezberdinak landuko ditugu: emakumeei ezartzen zaigun lortu ezinezko edertasunaren ideala; desberdintzen gaituen eta norbere autonomia eta askatasuna kentzen diguten maitasun erromantikoaren gizarte eta kultura eraikuntza; desioarekin dugun harremana eta geure desioak aitortzeko eta asetzeko zailtasunak, besteen desioak lehenago asetzeko joerarekin kontrajarriz. Dinamika horiek emakume izateak zer esan nahi duenari buruzko gure bizipenari nola eragiten dioten aztertuko dugu eta bakoitzak izan nahi duen emakumea izateko askatasuna edukitzeko tresnak planteatuko ditugu.



## LIBURU TRAILERRA - LITERATURA ETA ZINEMA TAILERRA

Formatzaileak: Lara Izagirre Garizurieta eta Agare López (Gariza Produkzioak)

Saio Kopurua: 7 (23 ordu guztira)

Datak: asteazkenetan, 2014ko otsailak 5, 12, 19, 26; martxoak 1 (larunbata - grabaketa); asteazkenetan, martxoak 5 edizioa eta martxoak 19 emanaldia eta gogoeta.

Ordutegia: 18:30 - 20:30

Matrikula: 10 €



Literatura eta zinema uztartzen dituen ikastaro honetan, emakumeek ipuinak irudi bihurtuko dituzte. Beraiek egingo dituzte, kameralari, zuzendari eta gidoilari lanak. Hitzak irudi bihurtzera eramango gaituen ikastaro-abentura honetan parte hartu!



## ZAINDU GEURE BURUA ZAINDUZ

Formatzailea: Kontxi López

Saio Kopurua: 8 (16 ordu guztira)

Datak: ostegunetan, otsailak 6tik martxoak 27ra (biak barne)

Ordutegia: 18:00 - 20:00

Matrikula: 10 €



Tailer honen helburua emakume ohiko zaintzaileen rolari, norberak denborak izateko eskubideari edo berdintasunean eta errespetuan oinarrituz familia-harremanen negoziazioari buruzko gogoeta sustatzea da. Halaber, tresnak eskaintzen ditu nork bere burua zaintzeko, gorputzaren, emozioen eta norberaren nahien kontzientziatik abiatuz. Zaintzea ez da beharra; negoziatu beharreko aukera da, norberaren beharra alde batera utzi gabe. Hartu atsedendia eta parte hartu.

INFORMAZIO OROKORRA: Hurrengo ekintza hauek aurretiko izen ematea, parte hartzearen konfirmazioa eta dagokion matrikularen ordainketa eskatzen dute.



## ZORU PELBIKOA INDARTZEKO ARIKETA TALDEA

Datak: 2014ko urtarrilak 9tik ekainaren 5era, hilabeteko lehenengo osteguna

Ordutegia: 16:00 - 17:30

Matrikula: doako ekintza, aurretiko izen ematearekin

Zoru pelbikoa indartzeko ariketak jada ezagutzen dituzten emakumeei zuzenduta. Ikastaro ezberdinetan parte hartu duten emakumeak talde autonomo honetan parte hartzera gonbidatuta daude, Marieneako baliabideak eskuragai dituztela.



## BERTSO ESKOLA FEMINISTA

Ekintza hau EUSKARAZ da

Formatzaileak: Uxue Alberdi Estibaritz eta Ainhoa Agirreazaldeg

Rekondo

Saio Kopurua: 4 (16 ordu guztira)

Datak: Ostiraletan, 2014ko otsailak 7, 14, 21 eta 28

Ordutegia: 16:30 - 20:30

Matrikula: 10 €

Generoak egiten dugun guztian eragiten gaitu. Are gehiago, egiten dugun hori, bertsolaritza bezala, tradizionaliki gizonezkoen eremu izan bada. Gaur egun badira emakume bertsolariak, baina: zein da bizi duten errealitatea? Aurrez egituraturiko bertsolaritza moldean eroso sentitzen dira? Badute euren molde propioa garatzeko modurik? Nolakoak zatekeen bertsolaritza emakumeek garatu izan balute? Zeintzuk dira emakumezko bertsolarien erronkak? Zer dute eskaintzeko edo borrokatzeko? Diskurtso feministak zer on eman diezaiokie bertsolaritzari? Zein paper joka dezakete entzule, gai-jartzaile eta antolatzaileek honetan guztian? Nola errimatzen da berdintasunaren doinu librean?

Bertsolaritzan ere, ez gaiak, ez egoerak, ez bertsolarien bertsoak, ez entzuleen begi-belarriak... ezer ez da neutroa. Horregatik, bertso eskola feministan, lehenengo eta behin egungo bertsolaritza betaurreko moreekin aztertuko dugu. Eta ondoren, emakumeak subjektu dituen bertsolaritza landuko dugu, emakume izateko modu posible guztiei bertsolaritzan leku eginez, interesgarri zaizkigun gaiak jarritz eta barrua ukitzen diguten kontuekin umorea eraikiz, batez ere.



## AUTODEFENTSA FEMINISTA



### Ekintza ELEBIDUNA

Formatzaileak: Emagin Euskal Herriko Ikerketa eta Dokumentazio

Zentroa (Joana Aurrekoetxea eta Idoia Arraiza)

Data: 2014ko martxoak 29, larunbata

Ordutegia: 10:00 - 14:00 eta 15:30 - 19:30 (8 ordu guztira)

Matrikula: 5 €



Nola eragiten du emakumeengan

beldurrak, amorrak, autoestima

ezak, maitasun erromantikoaren

eraikuntzak...?; Nola aurre egin

eraso-sexistei? Guzti honen

inguruan hausnartu eta gero,

estrategiak zein aukerak

eztabaidatuko ditugu.

## “EMAKUMEOK BADUGU ZER ESAN” ANTZERKI ETA LITERATURA TAILERRA

Formatzaileak: Agora

Matrikula: 20€

Sormen literario eta antzezlanaren bitartez, emakumeek beraien testuak eratu dituzte beraien ahots, espazioaren eta hitzaren jabeak izateko bitartez, prozesu osoaren protagonista eta parte hartzaile direlarik.

### 1. TAILERRA: EMAKUMEEN ESTEREOTIPOEN ANALISIA LITERATURAN.

Tailer honetan zinean eta literaturan dauden emakume izateko eredu patriarkalen analisi kritikoa egingo da.

Data: 10 saio (35 ordu) ostegunetan, otsailak 6tik apirilak 10era.

Ordutegia: 17:00 - 20:30

### 2. TAILERRA: IDAZKERA KREATIBOA. Norberaren bizipenak eta esperientziak adierazteko testuak eratzeko tailerra, eredu patriarkalek haratago, emakume izatearen ikuspegi anitza eta errealista islatzeko helburuarekin.

Data: 5 saioa, 2014ko apirilak 28 eta 30 eta maiatzak 5, 6 eta 7.

Ordutegia: 17:00 - 20:30

### 3. TAILERRA: AHOZKO NARRAZIO ESZENIKOA ETA TESTU LITERARIOAREN ANTZEZPENA. Aurreko tailerrean sortutako testuak antzezteko beharrezkoak diren gaitasunak abian jartzeko tailerra.

Data: 6 saio, maiatzak 12,13,14 eta 15, 19 eta 20

Ordutegia: 17:00 - 20:30

ANTZEZLANA: “EMAKUMEAK KOLORE GUZTIETAN”. Prozesu honen amaieran ikuskizuna aurrera eramango da.

Data: 2014ko ekaina, zehazteke

INFORMAZIO OROKORRA: Hurrengo ekintza hauek aurretiko izen ematea, parte hartzearen konfirmazioa eta dagokion matrikularen ordainketa eskatzen dute.

## PRODUKZIO NARRATIBOAK: IKERKETA ETA EKINTZA FEMINISTARAKO BALIABIDE METODOLOGIKOAK

Formatzaileak: Nagore García Fernández eta Itziar Gandarias  
Goikoetxea


Saio Kopurua: 3 (12 ordu guztira)

Datak eta ordutegia: maiatzak 16, ostirala: 16:30etatik - 20:30etara;  
maiatzak 17, larunbata: 10:00etatik - 14:00etara; eta maiatzak 23  
ostirala: 16:30etatik - 20:30etara.

Matrikula: 10 €



Produkzio narratiboak lantzeko ikastaro teoriko-praktikoa da hau. Ikerketa feministarako metodologia kualitatibo honek eskaintzen duena ikasiko dugu, bai giza ikerketarako testuinguruan, bai aktibismo feministarenean. Ezagutza nola eraikitzen den aztertuko dugu ikuspegi kritiko batetik eta ezagutza kolektiboek ahalbideratzen dituzten tresnak ere ikasiko ditugu. Ez da aurretiko esperientziarik behar ikerketa munduan. Feminista eta aktibista guztiak parte hartzera animatzen ditugu!



## MINTEGIA: EMAKUMEAK ETA GATAZKA

Formatzailea: Irantzu Mendi

Data: osteguna, 2014ko maiatzak 22

Ordotegia: 17:30 - 20:30

Matrikula: 5 €



# ERAKUSKETAK

BISITA LIBREA EGITEKO ORDUTEGIA:  
astelehenerdik ostegunera 9:30-14:30 eta  
16 - 20:30 eta ostiralak 9:30-14:30



MARIENEA

## "JABEKUNTZA ERRETRATUAK" ARGAZKI ERAKUSKETA

Antolatzailea: UNRWA Euskadi Garapenerako Lankidetzaren  
Euskal Agentziaren laguntzarekin  
Argazkilaria: Marisol Ramirez

Erakusketa data: 2014ko otsailaren 18tik 27ra

Bisita gidatua: 2014ko otsailak 18, asteartea, 19:00etan

Argazki erakusketa honek gogora ekarri nahi du emakumeen eskubideen alde lan egiten duten hainbat elkarte palestinen estrategiak lehen eskutik ezagutzeko asmoz, 2013ko ekainean EAEko 10 emakume elkartetako ordezkariak Palestinako lurralde okupatuetara egindako bidaia.




## "TIEMPOS COMPARTIDOS" ERAKUSKETA

Antolatzailea: Satur Peña eta Isabel Aliaga - Saisa Taldea

Inaugurazio data: 2014ko urtarrilak 16, osteguna, 19:00etan

Erakusketa data: 2014ko urtarrilaren 13tik, otsailaren 12ra

Erakusketa honetan azaltzen diren obrak kontzeptu, adierazpen, esperientzia eta inpresio aldaketen inguruko eztabaida luzeen emaitza dira. Proiektu ugarien obrek osatzen dute, non bereziki azkeneko sormenak nabarmendu nahi izan diren, poesia eta bertso saio ezberdinen sormen denboraren emaitza izanik. Hautemandako, bizi izandako eta irudi birtualen arteko fusioa. Hein batean, kontzeptuala den obra.



## "LA VIVIENDA ES UN DERECHO HUMANO" ERAKUSKETA

Antolatzailea: Amnistia internacional

Erakusketa datak: 2014ko martxoaren 4tik 26ra

Pertsona orok etxebizitzarako eskubidea dauka, hala ere, gure gizartean eskubide hori ez dago bermatua. Azkenaldian gainera, krisi ekonomiko egoeraren ondorioz familia asko haien etzetik irtenarazi dituzte, hipotekei aurre egitea ezinezkoa egin zaielako edota enplegua galdu dutelako. Familia talde ezberdinak osatzen dituzten pertsona hauek, oinarrizko eskubideak bermatzen ez dien eta guztiz arerioa den gizartean bizirauteko erresistentzia eta elkartasunezko estrategiak lantzen ari dira egunero. Erakusketa honek munduko problematika hau lantzen duten argazki eta informazio ezberdinak batzen ditu.



## "TOMAREMOS LAS CALLES" ARGAZKI ERAKUSKETA

Antolatzailea: JAVI LARRAURI

Erakusketa datak: 2014ko martxoaren 4tik 26ra

Egun bizi dugun krisian, herritarrok bai bizitza mailan zein oinarrizko eskubideetan ere murrizketak sufritzen ari gara. Egoera honi aurre egiteko, herri sare desberdinak eratu dira, hauetan guztietan hezkuntza eskubidea, osasuna edo etxebizitza eskubideak mantentzearen aldeko ekarpenak egiten ari direlarik: Auzo asanbladak, etxebizitzaren aldekoak, ekonomiarekin erlazionatutakoak, 15M-a, Marea Berdea, Zuria, Morea, eta abar. Erakusketa honek, emakumeak berdintasuna, askatasuna eta gizarte justiziaren aldeko borroka hauetan bultzatzen ari diren ekintzak jasotzen ditu.



## "LAS OPORTUNIDADES DE LA EDAD. MUJERES SABIAS" ARGAZKI ERAKUSKETA

Antolatzailea: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasunerako  
Ministerioko Emakumearen Institutua

Erakusketa hau argazki lehiaketa online baten lan finalisten aukeraketaren emaitza da. Ekimen interaktibo honek herritarren parte hartzea eta teknologia berrien garrantzia azpimarratzen ditu, emakumeen ikusgarritasunaren zerbitzurako. Erakusketa honek, arlo ekonomiko, sozial eta kulturalaren barruan, 60 urte baino gehiagoko emakumeek gizartearen jokatzeko duten paperaren inguruan sentsibilizatzea eta belaunaldien arteko elkartasuna sustatzea dauka helburu.

Erakusketa datak: 2014ko apirilaren 1etik maiatzaren 14ra.



## "ARGAZKIGINTZA LESBIKOA" ERAKUSKETA

Antolatzailea: GEHITU Euskal Herriko gay, lesbiana, transexual eta bisexualen elkarte, Argazkigintza lesbikoa lehiaketa barruan.

Erakusketa datak: 2014ko maiatzaren 26tik ekainaren 30era.

Erakusketa hau New York-en, 1969ko ekainaren 28an, pertsona lesbiana, gay, transexual eta bisexualen eskubideen defentsa hasi zeneko eguna gogoratzeko egin da.



# "ÁFRICA LGBT: REALIDADES LGBT AFRICANAS BUSCANDO LIBERTAD" ERAKUSKETA


MARIENEA



Antolatzailea: África LGBT Madrid

Erakusketa data: 2014ko maiatzaren 26tik ekainaren  
30era

Erakusketa honek, Afrikako lesbiana, gay, bisexual edo transexualek egunero bizi duten giza eskubideen urraketaz, segurtasun gabezia eta indarkeriaz ohartaraztea du helburu: Afrikan LGBT diren pertsonen errealitatea eta berdintasunaren aldeko beraien borrokaz ohartaraztea, hain zuzen. Erakusketa osatzen duten panel eta irudiek, jazarpen hauek jasotzen dituzte, baita hauei guztiei aurre egiteko burutzen dituzten ekintza ausartak ere. Horrela, Afrika bezalako kontinente anitza eta indartsuan, beraien dira askatasunaren eta duintasunaren lorpenean protagonista esanguratsuenak.



# PUBLIKO GUZTIEI ZUZENDUTAKO EKINTZAK



## "GENEROA ETA BERTSOLARITZA" HITZALDIA UXUE ALBERDI ETA AINHOA AGIRREAZALDEGIREKIN

Antolatzailea: Basauriko Balendin Enbeitia Bertso Eskola

Data: 2014ko urtarrilak 29, asteazkena

Ordua: 18:00

Hizkuntza: euskara

Otsailean zehar egingo den Bertso Eskola Feministarekin batera, generoa eta bertsolaritza lotzen duen hitzaldia izango dugu. Gaur egun badira emakume bertsolariak, baina: zein da bizi duten errealitatea? Aurrez egituraturiko bertsolaritza moldean eroso sentitzen dira? Zeintzuk dira emakumezko bertsolarien erronkak? Zer dute eskaintzeko eta borrokatzeko? Diskurtso feministak zer on eman diezaiolke bertsolaritzari?



MARIENEA



## "GORPUTZ ETA POLITIKA FEMINISTAK" HITZALDIA MARI LUZ ESTEBANEKIN

Antolatzailea: Basauriko Emakumeen Taldea, Marienea eta Bizkaiko

Foru Aldundiaren laguntzarekin.

Data: 2014ko Urtarrilak 30, osteguna

Ordua: 19:00



## "GENERO-ARIKETAK. FEMINISMOAREN SUBJEKTUAK" LIBURU AURKEZPENA


Hizlariak: Mari Luz Esteban, Iratxe Retolaza, Isa Castillo eta  
Kattalin Miner

Data: 2014ko otsailak 11, asteartea

Ordua: 19:00

Hizkuntza: euskara

Liburuaren egitasmoa, gorputz ikusezinak ikusgarri egiteko urratsa baino ez da, isilarazitako gorputzei ahotsa emateko saio txiki bat baino ez. Horretarako, pentsamendu (trans)feministarantz hurbiltzen diren gogoetak eta diskurtsoak bildu dira. Edozein modutan, helburua ez da izan (trans)feminismoan ekarpen berriak egitea, ez eta testu esanguratsuenen bilduma egitea ere. Bestalde, ikusgarri egin nahi izan da, pertsona, jende, talde eta mugimendu ugariaren kezka-iturri dela (trans)feminismoa. Ekintza eta pentsamendu (trans)feminista garatzen, eraikitzen eta hedatzen ari diren pertsona eta kolektibo batzuk bildu dira, eta irakurlea ohartuko denez, askotarikoak dira ahots horiek.



Genero-arietak

Feminismoaren subjektuak



## ETXEBIZITZA ESKUBIDEAREN INGURUKO JARDUNALDIA

Data: 2014ko martxoak 15, larunbata

Orduetgia: 10:00 - 14:00

(Aurrerago, informazio gehiago eskainiko dugu)

Krisi egoerak etxebizitza eskubidearen urraketa izan du ondorio moduan. Hori dela eta, azken urteetan herri antolaketa sare indartsua sortu da estatu mailan. Testuinguru honetan, emakumeon antolaketa etxebizitzaren aldeko mugimenduan oihartzun handia izaten ari da eta aurrerapen ugari lortu izan dituzte. Jardunaldi honetan, hainbat esperientzia, aldarrikapen eta borroka ezberdinak ezagutuko ditugu, baita mugimendu feministaren eta etxebizitza mugimenduaren arteko loturak ere.



## MACHO MARIS. MARKUS ETA JUANMANOLOREN SHOWA, GIZONAGOAK DIREN GIZONAK

Data: 2014 ekainak 12, osteguna  
Ordua: 19:30

Ikuskizun honek, umorearen bitartez Kode matxisten aurrean matxinatzen saiatzen ari diren gizonen eskaini nahi zaie; berdintasunaren aldeko lanean esfortsuak egiten ari direnei, hai zuzen. Dei bat da gogoetan eta autokritikan sakontzen jarrai dezagun.



### EGUN ESANGURATSUAK

OTSAILAK 6: EMAKUMEEN MUTILAZIOAREN  
AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA



MARTXOAK 8: EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

MARTXOAK 21: ARRAZAKERIAREN EBAZPENAREN  
NAZIOARTEKO EGUNA

APIRILAK 22: LURRAREN MUNDU EGUNA



MAIATZAK 17: MARIENEAKO II. URTEURRENA



MAIATZAK 24: BAKEA ETA DESARMEAREN ALDEKO  
EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

EKAINAK 28: GAY, LESBIANA, TRANSEXUAL ETA  
BISEXUALEN LGTB ESKUBIDEEN ALDEKO  
NAZIOARTEKO EGUNA

